

EGOERA POLITIKO BERRIA ETA HITZARMENA KUDEATZEKO PROPOSAMENAK IZANGO DITUZTE PARTAIDEEK MINTZAGAI

Lizarrako Akordioaren sinatzaileak Donibane-Garazin bilduko dira bihar

Irlandako Foroak Nafarroa Behereko hiriburuan egingen du Lizarrako Akordioa sinatu osteko lehen bilkura, bihar arratsaldean. Aitzineko ordezkariak gain, Hegoaldeko beste hiru partaidek sinatuko dute Lizarrako Akordioa. Ipar Euskal Herriatik zenbait erakunde begirale gisa agertuko dira.

Hur Gorostiaga / Baiona

BIHAR, Donibane-Garaziko herriko etxea izanen da Lizarrako Akordioaren bilkuraren kokagune. Joan den irailaren 12an Lizarrako Akordioa sinatu zuten kideek arratsaldeko bostetan egingen dute bilkura Nafarroa Behereko hiriburuan.

Lizarran izan ziren erakundee-tako ordezkariak gain, bertze hiru kidek ere izenpetuko dute akordioa. Iragan egunotan iragarri duenez, Nafarroako Ezker Batua idatzia sinatzeko prest dago, eta bihar bertan egingen du. Horrez gain, Jose Maria Gorordoren Euskal Uritarren Egitekoak alderdiak ere (ICV) onartuko du Lizarran hitzartu zen prozedura. Azkenik, EKA alderdi karlistak ere bat egingen du 23 euskal alderdi, sindikatu eta mugimendu sozialek landutako bidearekin.

Momentuko Abertzaleen Batasuna agertu da Lizarrako Akordioaren sinatzaile bakar gisa Iparaldeetik, baina biharko bilkuran Iparaldeko bertze erakunde batzuetako zenbait ordezkari begirale gisa agertuko dira. Besteak beste, Euskal Herriko Laborarien Batasuna (ELB) bertan izanen dela espero da. ELB Iparaldeko laborarien sindikatu nagusia da.

Abertzaleen Batasunak (AB) irailaren 17an egin zuen prentsaurrekoan, Lizarrako akordioa sinatzeko arrazoiak berri eman eta bigarren agerpen publikoa Ipar Euskal Herriaren egiteko prest agertu zen. Lizarrako prozesuan, Iparaldeak hastapenetik bere lekua izanik, ABk aitzina egiteko xedea agertu zuen. Ipar Euskal Herriko alderdi eta gizarte erakundeei dei egin zien Lizarrako Akordioaz jabetu eta bake proze-



Lizarrako Adierazpena irailaren 12an sinatu zuten 23 taldetako ordezkariak.

JAGOBA MANTEROLA

suarekin bat egin dezaten. «Euskal Herriak Frantzia eta Espainiarekin duen gatazkan Frantziako Estatuak duen rola», Lizarrako pausoa eta ETaren su-etenen ondoren, estatuek baikorki erantzun behar dutela adierazi zuen ABk une hartan. «Frantziako Estatuak borondatea agertu behar du, bake prozesuak aitzina egin dezan. Egun, Ipar Euskal Herriak bizi duen blokaia politikoa eten behar du», azaldu zuten. Astearte honetan, berriz, Arnaldo Otegi Parisen berean azaldu zuen, «aterabidea orokorra» izanen dela, eta Euskal Herria osorik harturik lan egingen dutela.

Gisa horretan, bilkura Doniba-

ne-Garazin egitea Lizarrako Akordioaren mamiarekin bat dator erabat. Izan ere, hastapenetik Euskal Herri osoa kontuan hartuko dutela adierazi zuten, Hegoaldeko lau probintziak zein Iparaldeko hirurak. Horrez gain, orain arte Frantziako Estatuak ez du ihardespen ofizialik egin, eta hari zeharkako keinua egingen diote. Izan ere, Jacques Chirac (RPR) Estatuak ordezkariak eta Lionel Jospin (PS) gobernuak ere ez dute inolako adierazpenik egin.

Egoera berriaren azterketa • Foruko kideak bilduko dira, baina prentsa ezin izanen da aretoan

egon. Lizarrako bilkuratik sortu diren aldaketak izanen dituzte aztergai. Lehenik akordioak izandako oihartzuna, eta bigarrenik ETaren su-eten adierazpena. Horiei jarraiki, bi gertakizunek sortu dituzten ondorioak izanen dituzte aztergai.

Egoera berria aztertu ondoan, etorkizunari begira jorratu beharreko bideez ariko dira. Hitzarmenak irekitako bidea garatzeko proposamenak, bai Euskal Herriari begira bai nazioarteari begira, mahai gainean izango dituzte aztergai partaideek. Bilkura arratsaldeko bostetan hasiko da, eta bi ordu beranduago hitzordua dute prentsarekin.

Leitzako Udala, Lizarrako Akordioarekin

Erredakzioa / Iruñea. Leitzako Udalak Lizarrako Akordioarekin bat egitea erabaki du hilaren 28an egin bilkuran. Udaltzatarrak aho batez hartu du erabakia. HBk eta EAK launa zinegotzi dauzkate, eta guztiok proposamenaren alde bozkatu dute. UI Leitzarra taldeak hiru zinegotzi dauzka, baina ez dira bilkuretara joaten. Astelehenean hartu erabakiak azaltzen duenez, Leitzako Udalak Lizarrako Akordioarekin bat egin du, «agiri horren inguruan 23 talde biltzeak eta berriki ETA erakundeak iragarri duen su-etenak giro berri bat sortu dutelako».

Erabakian, Udalak dei egingen die «Euskal Herriko erakundeei oro har, bakearen aldeko jarrera eta konpromiso irmoa har dezaten, bakea denon artean lortzeko herriari hitza eta erabakia emanez». Herriko talde eta pertsona guztiei gauza bera eskatzen die, «bakea denon artean lortzeko herriari hitza eta erabakia ematea». Udalak hedabideetara ez ezik, Nafarroako, EAEko eta Espainiako gobernuari ere igorri die erabakia.

Leitzako alkate Mikel Ilarregik (HB) azaldu du EAK eta HBk batera bultzatu dutela erabakia. «Udaletxean hizketan ari ginela, egoera berria ikusita, pentsatu genuen komenigarria, polita eta ezinbestekoa zela bakearen aldeko jarrera eta konpromisoa azaltzea».

Gerry Adams Lizarrako Akordioko kideekin bilduko da datorren astelehenean, Bilbon

Arnaldo Otegiarekin batera, mitin batean parte hartuko du arratsaldean

Iñaki Uriarte / Bilbo

GERRY ADAMS Lizarrako Foroko kideekin bilduko da hurrengo astelehenean Bilbon. Herri Batasunak gonbidatuta, Sinn Feineko burukideak bere babesa emango dio Euskal Herriari zabaldu nahi den bake prozesuari, eta Irlandako esperientziak mintzatuko da Euskal Herriko zenbait indar politikorekin.

Estatu Batuetarako bidean, Bizkaian egongo den hamar orduetan Gerry Adamsen hainbat bilera pribatu eta agerpen

publiko izango ditu. Horien artean Arnaldo Otegiarekin batera Bilboko Consulado zineman arratsaldeko zazpi eta erdietan egingo duen ekitaldi politikoa.

Adams goizeko hamaiketan helduko da Sondikako aireportura, eta han lehen ongi etorria izango du Herri Batasunako burukide eta dantzarien aldetik. Aireportuan bertan agurtzeko hitz labur batzuk egingo dituzte Sinn Feineko burukideak eta Arnaldo Otegi.

Ordubete beranduago, Pat Rice Sinn Feineko nazioarteko

arduradunarekin eta Pernando Barrena eta Arnaldo Otegi HBko Mahai Nazionaleko kideekin prentsaurrekoa eskainiko du Bilbon. Zenbait ekitaldi pribatuaren ostean, bilera labur bat izango du Irlandako Foroa izenaz hasi eta Lizarrako Adierazpena sinatu zuten alderdi, sindikatu eta gizarte erakundeetako ordezkariarekin. Handik Basauriko espetxera joango da, Herri Batasunako eurodiputatu ohia eta Irlandako prozesua hurbiletik segitu zuen Karmelo Landa bisi-tatzera.



Gerry Adams, Karmelo Landarekin, 1994an Euskal Herrian izan zenean.

XOUSA SIMAL